



BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**PRIM 9****Egilea eta data: Manuel de Echave, 1894****Deskribapena**

Eraikin bakartua, 1894an Manuel de Echavek proiektatutako eta 1898an amaitutako jauregitxo bat altueran jasotzearen ondorio. Isasi izeneko jauregia erdisotoz, bastardez (oin noble gisa) eta goiko bi altuez osatzen zen. Goialdean, hainbat erremate mota zituen izkinetan, bai eta estalki inklinatuko dorreak, bobedak eta kupulak ere. Sarbide nagusia pasealekuan zeukan, eta erdiko banatzaile adierazgarri batetik antolatutako oin batera ematen zuen. Horren aurrean, eskailera inperial bat zegoen. 1934an, jauregia ia bere osotasunean eraldatu zuten, eta solairu nagusiraino fatxada tartea errespetatu zuen obra berritzat hartu zuten. Eraikin berria hormigoizko egituraz berreraiki zuten, eta bost goi oin ditu bastardearen gainean, azkena atzeraemana. Maria Kristina zubitik zabalduaren sarbidean duen kokapenak nolabaiteko esanahia ematen dio hirian. Balio hori, era berean, baoen (batez ere, jatorrizkoen) eskala handiak ematen dio, bai eta kuxindurak dituen hareharrizko harlanduaren eraikuntza kalitateak ere (tradizio neoklasikokoa da).

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzarekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: bosgarren oineko jasodura atzeraemana.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.